

 Responder a todos | ▾

Eliminar

Correo no deseado | ▾



gazte mozioa

PA

Paul Yarza Agirregomezkorta

Ayer, 18:52

Abiapuntu ▾

 Responder a todos | ▾AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
REGISTRO GENERAL/ERREGISTRO OROKORRA
ENTRADA/SARRERA

Fecha/Data 14-02-17 11:17:53

Num./Zk. 1.143

Bandeja de entrada (Abiapuntu)

Gazte_Batzorde_ez_iraun... ▾

101 KB

 1 archivos adjuntos (101 KB) descargar

Egun on.

Paul Yarza Agirregomezkorta, 15.376769G nan zenbakia duenak, 2017ko otsailaren 13n, Euskal Herria Bildu Ermua udal taldearen izenean, atxikitutako mozioa aurkezten dut Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

**PROPOSAMENA, ERMUKO UDALAK INPLEMENTATUKO DITUEN GAZTE
POLITIKEEI JARRAIPENA EGITEKO BATZORDE EZ IRAUNKORRA
SORTZEKO**

Ermuko Udalean badaude hainbat batzorde eta kontseilu arlo ezberdinak lantzeaz arduratzen direnak, guztion artean erabakiak hartzea ahalbidetzen du horrek. Ikuspuntu ezberdinak kontutan hartuz, ideia eta proiektu anitzak martxan jartzeko aukera paregabea da horrelako lantaldeak sortzea. Baina gazteen eta haurren arloak ez dira inon lantzen. Ez dago inolako plangintzarik eta egoera honi erantzun bat ematea beharrezkoa dela uste dugu Ermuko EH Bildutik.

Egia da urteetan zehar udalak saiakera ezberdinak egin dituela Ermuko gazteengana iristeko asmoz. Normalean, aisialdiko plan alternatiboak eskaini izan dira inolako plangintzarik gabe, ezta jarraipenik gabe ere, gazteen parte hartzerik gabe. Ondorioz, ez du batek ere indarrik izan eta guztiek helburuaren funtsa galdu izan dute, ez dagoelako gazteei zuzendutako politikarik udalean.

Guzti honen eraginez, gazteak lokaletan kuadrilaka antolatuz joan dira urteetan zehar. Ondorioz, herrian eta herriko gaietan duten parte hartzea minimoa izan da. Parte hartzea ez da egun batetik bestera ikasten den jarrera bat, txikitatik ikasten den zerbait da, testuinguruak ahalbidetzen badu noski. Jarrera hori indartu beharrean, Udalak orain arte izan duen politikarekin guztiz kontrakoa lortu du. Gazteria eroso eta traba askorik sortzen ez duena lortu du.

Azken boladan badirudi zerbait mugitzen ari dela Udal barruan, haurrek sortuko duten herri hori edota Bizkaiko Foru Aldundiak Mallabiko eta Ermuko Udalarekin batera martxan jarri duten gazteen parte hartze programarekin. Nahiakoa al da? Gure ustez ez. Guzti honek plangintza eta jarraipen bat behar du eta ororen gainetik gazteen parte hartzea.

Beraz, gure asmoa gazteen ikuspuntutik herriak dituen ahulguneak indartzea eta gazteriari ahotsa ematea da gazte kontseilu bat sortuz. Honekin batera gazte batzorde bat sortuko litzateke udaleko ordezkari osatutakoa eta guztion artean gazte plangintza aurrera ateratzea izango litzateke helburua.

Horiek horrela, **EH Bildu** taldeak honako **PROPOSAMENA** aurkezten du, Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran azter dadin:

- **Batzorde Ez Iraunkor** bat eratzea, Ermuan inplementatuko diren gazte politikei jarraipena egiteko eta Udala osatzen dugun ordezkari guztiak, parte hartzeko eta proposamenak egiteko aukera izateko.

- Gazte Kontseiluaren osaketa: gaztez osatutako lantaldea izango da, parte hartzea luzatuko da ahalik eta lantande anitzena osatzeko asmoz.

- Batzordearen osaketa: udal talde guztietako ordezkari bana, bozka ponderatuarekin, baita gaztez osatutako gazte kontseilua ere. Beharra ikusten denean, udaleko zerbitzuetako teknikarien zein hiriko eragile, elkarte zein taldeen parte hartze aukerarekin.

- Iraupena: legealdia.

- Bilera araubidea:

- Gazte Kontseilua: hilean behin, gutxienez.

- Gazte Batzordea: hiru hiletik behin, gutxienez.

Ermua, 2017ko otsailaren 13a

Paul Yarza Agirregomezkorta
EH Bildu udal taldeko bozeramailea